



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dosier de Prensa
Acuerdos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailak 7

Vitoria-Gasteiz, 7 de julio de 2020

Lehendakaritza

350.000 EUROKO LAGUNTZA SALVAMENTO MARÍTIMO HUMANITARIO – SMH GOBERNUZ KANPOKO ERAKUNDEAREN AITA MARI PROIEKTURAKO

Gobernu Kontseiluak Salvamento Marítimo Humanitario – SMH Gobernuz Kanpoko Erakundeari 350.000 euroko laguntza ematea onartu du *AitaMariZubia #MAYDAYTERRANEO 2020* proiektua aurrera eramateko.

Laguntzari esker —Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiaren bidez emango da—, larrialdietako profesionalak eta boluntario askok osatutako erakunde horrek itsasoan pertsonen bizitza zaintzeko eta Giza Eskubideen defentsa sustatzeko duen helburuarekin aurrera jarraitu ahal izango du.

Azken urteetan, Mediterraneo Erdialdeko bidetik —Libia, Tunisia, Italia eta Malta artean— Europara heltzea lortzen duten pertsonen kopuruak behera egin duen arren, arriskutsuenetako bat izaten jarraitzen du eta pertsona gehien hiltzen eta desagertzen diren bidea da.

Gaur onartutako laguntzak “Salvamento Marítimo Humanitario” erakundeak egindako larrialdi-deiari erantzuten dio. Laguntzari esker, Mediterraneo Erdialdeko gunean migrazio-fluxuen bilakaerari erantzuteko erakunde horrek erreskatatzeko eta pertsona horiek artatzeko betetzen duen funtzio bikoitza ematen jarraitu ahal izango du.

Jakina denez, SMHk 2018an —Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin— proiektu bat jarri zuen martxan. Proiektu horren bidez, *Aita Mari* ontzia prestatu eta ospitaleko materialez hornituko zen nazioartearen babesa bilatzen zuten pertsona errefuxiatuei asistentzia sanitarioa emateko eta itsas erreskateko operazioak egiteko. Ontziak zerbitzu mediko modularreko gune bat dauka. Horri esker, IGKU (Ospitaleratu Gabeko Kirurgiako Unitatea) edo ZIU motako zerbitzuak eman ditzake, kasu bakoitzaren arabera, laguntza sendotzeko eta premiazko erantzuna eman ahal izateko.

Gobernantza Publiko eta Autogobernu

IVAPEK 1,3 MILIOI EURO BIDERATUKO DITU OSAKIDETZAN, HEZKUNTZAN, ARKAUTEN ETA EHU-N LAN EGITEN DUTEN LANGILE PUBLIKOEN PRESTAKUNTZARA

- **Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak beste urtebetez berritu ditu lau prestakuntza-hitzarmenak, gutxienez emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko ikastaro bat barne hartzen dutenak**

Gobernu Kontseiluak onartu du, gaur, [Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen \(IVAP\)](#) lau hitzarmen berritzea, Osakidetzako, Hezkuntzako, Euskal Herriko Unibertsitateko eta Arkauteko Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako langile publikoen prestakuntzarako. Helburua lau erakunde horietan lan egiten duten langile publikoen planak eta prestakuntza-programak berritzea da, bai eta horien finantzaketa arautzea ere.

- **Hezkuntza** Sailarekin hitzarmena: irakasleei prestakuntza emateko da, eta gehienez 525.000 euroko zuzkidura izango du.
- **Osakidetzarekin** hitzarmena: pertsonal sanitarioari eta ez-sanitarioari zuzenduta, dela osasun-eremuan, dela osasun-kudeaketako eta -administrazioko arloetan. Horien prestakuntzarako bideratzen den zuzkidura gehienez 537.000 eurokoa izango da.
- **Euskal Herriko Unibertsitatearekin (UPV/EHU)** hitzarmena: administrazioko eta zerbitzuetako langileei prestakuntza emateko da, eta gehienez 45.000 euroko zuzkidura izango du.
- **Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiarekin (Arkaute)** hitzarmena: langile publikoei zuzenduta, prestakuntza Arkauteren eskumenekoa denean. Sinatutako prestakuntzak gehienez 230.000 euroko zuzkidura izango du.

PRESTAKUNTZA-EKINTZAK

Berritutako lau hitzarmenak 2020ko abenduaren 31ra arte egongo dira indarrean eta honako ekintza hauek ere jasotzen dituzte:

- Prestakuntza-edukiak diseinatzea eta/edo prestatzea.
- Ikaskuntza-sareak ezartzea, aldi baterakoak edo iraunkorrak.
- Irakaskuntzako materiala diseinatzea, prestatzea eta argitaratzea, prestakuntzan erabiltzen den edozein euskarritan.
- Erakundeak garatutako prestakuntzaren inguruan aprobetxamenduaren, transferentziaren edo inpaktuaren ebaluazioarekin lotura duten ikasketak.

Gainera, lau hitzarmenek jasotzen dute honako hau zehazten duen klausula bat: *“gutxienez, programatutako prestakuntza-ekintza bat emakume eta gizonen berdintasunaren arlokoa izan behar da”*. Eusko Jaurlaritzak, horrela, langile

publikoei prestakuntza eman nahi die, gero herritarrei eskaintzen dieten zerbitzu publikora eraman ahal izateko berdintasun-politika horiek.

IVAP

[Herri Ardularitzaren Euskal Erakundearen \(IVAP\)](#) helburuetako bat da Euskadiko administrazio publiko guztietako langileen prestakuntza eta euskalduntzea. Zehazki, IVAPen prestakuntza-zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorraren eta bere erakunde instituzionalen zerbitzura dauden langileen sarrerako prestakuntza-planak diseinatu, kudeatu eta ebaluatzen ditu, haien posturako eta lanbide-karrerarako.

Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak

70.000 EURO NEKAZARITZAKO SEKTOREKO SASOIKO LANGILEENTZAKO OSTATULEKUAK ERAIKITZEKO ETA HOBETZEKO

- **Sasoiko Lanaren Arretarako Eusko Jaurlaritzak abian jarritako IV. Plan Integralaren barruko laguntzak dira**
- **Ostatuleku horiek eraiki, erosi, gaitu, eraberritu, handitu, egokitu, hobetu eta hornitzeko lanetara bideratutako laguntzak dira**

Nekazaritzako sektorean lana egiten duten sasoiko langileentzako ostatulekuak izango diren higiezinak sortu, egokitu eta hornitzeko 2020ko ekitaldian emango diren laguntzak iragartzeko Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburu Arantxa Tapiak emandako Agindua onartu du Eusko Jaurlaritzak bere azken Kontseilu bileran.

Guztira 70.000 euroren laguntzak aurreikusi dira, eta pertsona fisikoak eta juridikoak, publikoak nahiz pribatuak, baliatu ahal izango dira laguntza horietaz, baldin eta sasoiko lana egiten duten pertsonen ostatu emateko higiezin jabeak badira.

Martxoaren 24ko 45/2020 Dekretuaren barruan sartzen dira laguntza horiek, eta, era berean, **Sasoiko Lanaren Arretarako IV. Plan Integralaren** zatia dira, zeinarekin “sasoiko lanaren inguruan sortzen diren premiei erantzuteko jarduerak modu koherentean eta koordinatuan planifikatu” nahi den, hori izanik planaren helburu orokorra. Premia horietako batzuk dira ostatuleku gisa erabiltzen diren higiezin eskatzen zaizkien gutxienezko baldintzak betetzea eta leku kopuru nahikoa edukitzea, bizigarritasun eta duintasun baldintza egokietan.

Dekretu honetan zehazten denez, diruz lagundu daitezke sasoiko langileentzako ostatulekuen sarea handitzera eta hobetzera eta ostatu baldintza duinak bermatzera zuzendutako proiektuak edo jarduketak, eta sasoiko langileak Euskal Autonomia Erkidegoan dauden denboran lurraldean integratzera bideratutakoak

Horien barruan egon daitezke ostatulekuak eraikitze lanak edo, kasua bada, ostatulekuen erosketa, eta ostaleku horiek gaitzeko, eraberritzeko, handitzeko, egokitzeko, hobetzeko eta hornitzeko lanak, ostatuleku erregistratua izateko eskatzen den araudia bete ahal izateko. Laguntzei dagozkien inbertsioak edo gastuak urte batean edo urte bat baino gehiagoan gauzatu ahal izango dira. Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean hasiko da laguntzen deialdian sartzeko eskaerak aurkezteko epea, eta bukatu, berriz, fondoak guztiz agortzen direnean bukatuko da edo, bestela, ekitaldi honetako azaroaren 15ean. Fondoak agortzen badira, Landa eta Itsasertzaren Garapeneko zuzendariak emango du horren berri, Euskal Herriko Agintaritzaren

Aldizkarian argitaratuta.

Enplegua eta Gizarte Politikak

ARTOLAZABALEK GOBERNU KONTSEILUARI COVID-19-AREN ONDORIOZKO ALDI BATERAKO ENPLEGU-ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEEN ERAGINPEAN DAUDEN LANGILEENTZAKO APARTEKO LAGUNTZEN SORRERAREN BERRI EMAN DIO

- **Lanbidek aparteko deialdi bat sustatuko du, 15,5 milioi eurokoa**

Beatriz Artolazabal Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak Gobernu Kontseiluari, gaur, honako akordio honen berri eman dio: aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente (ABEEE) baten eraginpean dauden eta soldata baxuenak dituzten langileen prestazioaren osagarri bat sortzea, zati batean errenten murrizketa arintzeko eta, hala, ahal den neurrian, beren beharrei erantzun ahal izateko besteko bizi-mailari eutsi ahal izateko. Horretarako, Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuak aparteko laguntzen deialdi bat sustatuko du.

Deialdi hori laster onetsi beharko da Lanbideko Administrazio Kontseiluaren akordio bidez, eta 15.466.500 euroko aurrekontua izango du. Laguntza ABEEEn dauden eta urtean 20.000 eurotik beherako kotizazio-oinarria duten pertsonen zuzentzen zaie. Zehazki, hilean 150 euroko langabeziagatik prestazioaren osagarri izango dira, % 50etik gorako lanaldia duten pertsonen kasuan, eta hilean 100 eurokoa, % 50etik beherako lanaldia dutenen kasuan.

Laguntza horiek pasa den ekainaren 18an adostu zituzten Gizarte Elkarrikerarako Mahaiko Enplegu Taldeak, Eusko Jaurlaritzak, Langile Batzordeak eta Langileen Batasun Orokorrak sindikatuek eta Confebaskek. Eta, horren bidez, diru-sarrera gutxien dituzten eta ABEEEn dauden langileen prestazioak osatu ahalko dira, uztailaren 1etik irailaren 30era bitartean.

Neurri horren bidez, Eusko Jaurlaritzak, Iñigo Urkullu Lehendakariak lehendakari autonomikoen konferentzian iragarri bezala, bere gain hartzen du soldata baxuenak dituzten langileen behar-egoerak arintzen laguntzeko ahaleginaren zati bat; izan ere, enpleguari eutsiz gero ere, beren lan-kontratuak eteteko aldian eskuratzen dituzten errenten murrizketa handia jasan ohi dute.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza

ETXEBIZITZAK % 37 AREAGOTU DU ETXEBIZITZEN BIRGAITZE INTEGRALA SUSTATZEKO RENOVE PROGRAMAREN AURREKONTUA

- **1980aren aurreko eraikinen jabeen erkidegoentzako laguntzak areagotu egin dira; lehen, 6,4 milioi eurokoak ziren eta, gaur egun, 8,8 milioi eurokoak**
- **Efizientzia energetikoko, irisgarritasuneko eta segurtasuneko hobekuntzez gainera, lehenengoz sartu da balkoi eta terrazak sortu edo handitzea**

Gobernu Kontseiluak onetsi du gaur etxebizitzaren eta eraikinen birgaitze integral eta eraginkorrerako aurtengo laguntzen deialdia (Renove Programa Integrala); izan ere, bere aurrekontua % 37,5 handitu du, 6,4 milioi eurotik 8,8 milioi eurora. Atzo aurkeztu zuten programa Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko arduradunek.

Programaren zenbatekoa nabarmen handitu da eta horrek erakusten du nolako garrantzia ematen dion Sailak Euskadin 1980a baino lehen eraiki zen etxebizitza-parkea berritzeari; kasu askotan, bizigarritasun-arazo larriak ditu. Eraikitako ondarea birgaitzearen aldeko apustua Etxebizitzaren Plan Gidariaren ardatz estrategikoetako bat da; izan ere, eraikin zaharretan bizi diren pertsonen bizi-kalitatea hobetzen du, hiriak suspertzen ditu eta, hala, lurzoru berriak kontsumitzeko beharrik egon gabe eta jarduera ekonomikoa eta enplegua sortzen ditu.

Laguntzen helburua 40 urtetik gorako eraikin komunitarioen efizientzia energetikoa, irisgarritasuna eta segurtasuna hobetzea da, haiek baitira eraikinen ikuskapen teknikoetan (EIT) gehien antzematen diren defizitak. Hala ere, aurtengo deialdian lehen aldiz jaso da etxebizitzaren kanpoko bizigarritasuna hobetzea eta, horretarako, balkoi edo terrazak sortu edo handitzea, baldin eta udal-ordenantzek eta eraikinaren baldintza fisikoek horretarako aukera ematen badute. Dirulaguntza jaso dezakeen jarduketa berri hori dator etxebizitzaren espazio horiek besteak beste Covid-19ak ekarri duen derrigorrezko konfinamenduan hartu duten garrantziaren ondorioz.

Renove Integral programaren onuradun izan ahalko dira gutxienez sei etxebizitzako etxadiak osatzen dituzten bizitegi-eraikinetako jabe-erkidegoak edo gutxienez etxadiaren alde bat eraikita duten eta sei etxebizitza edo gehiago dituzten bizitegi-multzoak. Honako jarduketa hauek jaso dezakete dirulaguntza, besteak beste: fatxaden eta teilatuen isolamendua, galdarak ordeztzea, igogailuak jartzea, zero kotako obrak atarietan eta oztopo fisikoak kentzea sarbideetan, beroa berreskuratzeko aireztapen-sistemak ezartzea eta inguratzaile termikoa hobetzea. Jarduketa horiek guztiak batera egin beharko dira obra edo jarduketa berean, eta eraikinaren efizientzia energetikoa gutxienez C kalifikaziora iritsi beharko da, bai CO2 isurketei dagokienez, bai lehen mailako energia ez-berriztagarriaren kontsumoari dagokionez, eta, era

berean, bide publikotik etxebizitza bakoitzera iristeko aukera bermatu beharko da, mailak dituzten desnibelak libratu beharrik gabe.

Laguntzak esleitzeko orduan, lehenetasuna izango dute birgaitze integratuko areetan edo bizitegi-area degradatuetan dauden birgaitze-proiektuek, edo Ezkerraldeko, Meatzaldeko edo Oarsoaldeko udalerrietan daudenek, bai eta etxebizitza guztien % 50etik gora errentamendu babesturako dituzten higiezinatarako jarduketek ere.

25.000 euro etxebizitzako, gehienez

Birgaitze integraleko proiektuetarako (efizientzia energetikoa, irisgarritasuna, segurtasuna eta kanpo-hobekuntza) dirulaguntza handiena 25.000 eurokoa izango da etxebizitzako, oro har, eta 28.500 eurokoa, aipatutako kasu berezietan. Hala, laguntzaren gehieneko zenbatekoa orain arte esleitutako aurrekontuaren % 60koa zen eta, orain, % 70ekoa eta % 80koa birgaitze integratuko areetan edo bizitegi-area degradatuetan dauden eraikinen kasuan. Kanpoko igogailurik ez zuten eraikinetan igogailua jartzeagatik, laguntza 85.000 eurokoa da gehienez, eta 65.000 eurokoa barruko igogailu bakoitzeko.

Bestalde, kanpo-espazioak (balkoiak edo terrazak) sortzeko edo handitzeko – deialdi honetan berria da–, gehieneko laguntza 5.000 eurokoa da etxebizitzako, oro har, 1.000 eurokoa handitutako metro koadro bakoitzeko.

Deialdi honen izapidetzea % 100 digitala/telematikoa da, eta EHAAn argitaratu eta bi hilabetera arte eskatu ahal izango da.

Urteko deialdi honekin paraleloan, Etxebizitza Sailak, gainera, beren etxebizitzaren bizigarritasuna eta irisgarritasuna bereizita hobetuko dituzten eta kontsumo energetikoaren murrizketa ekarriko duten obra eta erreformak sustatzen dituzten partikularrentzako birgaitzerako laguntza-ildoak du, etengabe zabalik dagoena. Era berean, dirulaguntzen programa bat du, udalei eta toki-erakunde txikiei zuzenduta, hiri-ingurunean eta eraikin publikoetan irisgarritasuna bermatuko dituzten planak eta obren betearazpena prestatzeko.

Guztira 730 etxebizitza 2018ko Etxebizitza eta Eraikinen Birgaitze Efizientearen Renove programaren laguntzen onuradun izan ziren, 20 jarduketaren bidez; ekitaldi horrek 6 milioi euro baino gehiago izan zituen (6.175.000). 2019an, 541 etxebizitza izan ziren 24 jarduketatan eta 39 atari onuradunak.

Programaren bost deialdietan, orain Renove Integral izena hartu duen laguntza-ildo horrek bakarrik autonomia-erkidegoaren parke eraikiaren birgaitzean 77 milioi euro baino gehiagoko inbertsio metatua aktibatzea ekarri du.

Hezkuntza

HEZKUNTZA SAILAK 240.000 EURO BIDERATU DITU *UDAN EUSKARAZ!* PROGRAMARAKO, EUSKARA INDARTZEKO JARDUERATARAKO

- **Jarduerak Hamaika Esku programako ikastetxe publikoetako Lehen Hezkuntzako 5. maila eta DBHko 2. maila bitarteko ikasleei zuzenduko zaizkie**

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, 2020ko oporraldian euskara indartzera bideratutako hezkuntza-jardueretan Hezkuntza Sailarekin lankidetzan aritu nahi duten erakundeentzako laguntzen deialdia egiten duen Agindua.

240.000 euroko kopuruarekin, *Udan, euskaraz!* deialdiak 2020ko udan garatuko diren jarduerak lagunduko ditu diruz. Aipaturiko jarduera horien xedea izango da euskarazko hizkuntza-konpetentzia indartzea Hamaika Esku programako ikastetxe publikoetan, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetan eta DBHko 1. eta 2. Mailetan ari diren ikasleen artean. Hain zuzen, ikasle gehien biltzen diren udalerrietan gauzatuko da ekimena, hau da, Gasteizen, Oionen, Bilbon, Barakaldon, Sestaon, Donostian eta Irunen.

Udan, euskaraz! ekimeneko jarduerak 50 orduko iraupena izango dute, eta jolas giroan egingo dira. Besteak beste, kirolak, dantza, jolasak, antzerkia, literatura-solasaldiak edo irrati eta bideo grabaketa tailerrak izan daitezke jarduera horiek.

Deialdian 60 talde sortzea aurreikusten da, horietako bakoitzean 14 partaide gehienez ere. Jarduerak abuztuan egingo dira, bi alditan: lehenengo txanda, abuztuaren 1etik 15era, eta bigarren txanda, abuztuaren 15etik 30era. Ordutegia goizekoa izango da, kasu bietan.

Covid-19 eta euskarazko hizkuntza-konpetentzia

Covid-19 pandemiaren ondorioz, 2019-2020 ikasturtearen azken hilabeteetan ezin izan da ikasleekin aurrez aurreko irakaskuntza garatu, eta ikasle gehienak irailera arte ez dira klaseetara itzuliko. Testuinguru horrek, euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren garapenen eragina eduki ahal izan du, batez ere, familia-hizkuntza eta ingurune soziolinguistikoa gaztelania edo beste hizkuntza bat duten ikasleen kasuan. Kontuan hartu behar da, gainera, ikastetxea dela ikasle horien kasuan euskararekin harremanean izateko aukera bakarra, ikaskuntza-hizkuntzaren bidez.

Beraz, *Udan, euskaraz!* ekimena egoera horri erantzun emateko proposamen osagarri gisa sortu da, eta udako oporretarako jarduerak diseinatzeko lehentasuna du. Horretarako, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak jarduera horietarako oinarriak prestatu ditu, Europako esparruko A2 mailako oinarritzko elementuak jasotzen dituztenak. Erakundeok kontuan hartu beharko dituzte

oinarri horiek, aipatutako mailari dagozkion egiturak, hiztegia eta esamoldeak ikasleekin lantzeko.

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo

TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILAK AKORDIO BAT SINATU DU EUSKAL ERAKUNDEEKIN, TURISMOKO ETA MERKATARITZAKO BONUAK ATERATZEKO ESTRATEGIA BATERATU BATERAKO

Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburu Sonia Pérez Ezquerrak turismoko bonuak eta merkataritzako bonuak jaulkitzeko euskal erakundeekiko lankidetzak-akordio bana aurkeztu du gaur Gobernu Kontseiluan.

Euskadi Turismo bonua eta Euskadi Bonodenda bonua turismoaren eta ostalaritzaren sektorerara eta merkataritza-sektorerara bideratuko dira, hurrenez hurren. Bonu horiek Sailak Covid19a dela eta ezarritako 2 aldiko strategiaren barruan sartzen dira. Lehen fasea **erresistentziakoa** izango da, eta bigarrena, berriz, **suspertzekoa**. Bonuek, beste neurri batzuekin batera (hala nola sustapen-kanpaineekin edo laguntzekin batera), **sektorea** suspertzeko eta **dinamizatze**ko fasea dute ardatz.

Hori dela eta, merkataritza-arloko akordio bat sinatu da Arabako eta Bizkaiko foru-aldundiekin, EUDEL Euskadiko Udalen Elkartearekin eta Bilboko eta Gasteizko udalekin. Turismo-arloko akordioaren kasuan, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Donostiako Udalarekin ere sinatu da.

Merkataritzaren kasuan, helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko merkataritza-sektoreko txikizkako establezimenduetan kontsumoa sustatzea ("Euskadi Bonodenda"). Programa honen oinarri den erakunde arteko akordioak pizgarri- eta estimulu-sistema bera garatzen du Euskal Autonomia Erkidego osoan, herritarrek beren lurralde-eremuko saltokietan eskuragarri dituzten deskontu-bonuen bidez.

Turismoan, berriz, Euskadi Turismo bonua turismo-enpreetan kontsumitzera bideratuta dago, eta hainbat deskontu eskaintzen ditu ostatueta edo turismo-jardueretan.

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo

TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILAK HIRIGUNE LAGUNTZA-PROGRAMARAKO DEIALDIA EGIN DU

Hirigune laguntza-programa Covid-19aren aurrean Hiri Merkataritzaren Lankidetzaren, Dinamizazio eta Lehiakortasuneko zonako estrategiak sustatzera bideratuta dago. Ekitaldi honetan, **programaren aurrekontua 1.950.000 euro da.**

Hiriguneraren helburua da udalerrri bakoitzean jarduketa-proiektu bakarrak eta globalak garatzea eta, era horretan, osasun-krisiak eragindako egoera arintzea eta Hiri Merkataritzaren Lankidetzaren, Dinamizazio eta Lehiakortasuneko zonako estrategiak sustatzea, zentralitate-eremuetan eta hurbileko eremuetan, hala nola auzoetan (auzo berriak, zahartuak, degradatuak...).

Hirigune laguntza udalei ere zuzendu ohi zaie, baina bizi dugun salbuespenezko egoeraren aurrean, sektorean bildu da aurrekontu-ahalegin guztia: merkatarien elkarteak, merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuetako elkarte mistoak edota hiri-merkataritzako plataformak, taldeak edo elkarteak.

Eta, hori guztia, lankidetzaren publiko-pribatuko espirituari uko egin gabe, sinergia hori estutzeko eta normaltasun berrian baterako gobernantza modu eraginkor eta berrituan abiaraztea ahalbidetuko duten baldintzak sortzeko aukera emango duen lankidetzaren esparru baten barruan.

COVID19ak eragindako salbuespenezko egoera hori dela eta, lankidetzaren publiko-pribatuko esparru-akordioan jaso beharreko diruz laguntzeko moduko jarduketaren lehentasunezko helburuak honako hau izan beharko du: pandemia geldiarazteko osasun-neurriek hiri-merkataritzaren sektorean eragiten dituzten ondorioak arintzea, eta merkataritza-jarduera eta, oro har, hirugarren sektorekoa suspertzen eta eusten laguntzea.

Kultura eta Hizkuntza Politika

ELEBIDEKO 2019KO MEMORIAREN ARABERA, IAZ HIZKUNTZA ESKUBIDEEN URRAKETEKIN LOTURIKO 194 INTZIDENTZIA ERREGISTRATU ZIREN, AURREKO URTEAN BAINO 51 GUTXIAGO

- Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak gaurko Gobernu Kontseiluan aurkeztu du Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Zerbitzuaren iazko balantzea
- Izapidetutako intzidentzia gehienak kexak izan ziren (168), eta 164tan euskal hitzunek nozitu zuten eskubide-urraketa; eta, 4 kasutan, gaztelaniazkoek

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak gaurko Gobernu Kontseiluan aurkeztu du Elebide-Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Zerbitzuaren 2019ko memoria. Datu horien arabera, iaz hizkuntza eskubideen urraketekin loturiko 194 intzidentzia erregistratu ziren, aurreko urtean baino 51 gutxiago (2018an 245 izan ziren). Intzidentzia horiek, horrela banatu ziren: 168 kexak izan ziren; 16 intzidentzia ez ziren onartu; 8 kontsulta egin ziren; eta 2 iradokizun jaso ziren. Helarazitako 168 kexa horietatik 164tan (% 98) euskal hitzunek nozitu zuten eskubide-urraketa; eta, 4 kasutan, gaztelaniazkoek. Kexen % 87 (146 kexa) esparru publikoan gertatutako eskubide urratzeak dira, eta % 13 (22 kexa) esparru pribatuari dagozkio.

Elebide-Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Zerbitzua 2007an jarri zen abian eta helburua da hala eskatzen duten herritarrei beren hizkuntza-eskubideak babesten laguntzea, informazioa eta aholkularitza eskainiz. Iazko intzidentzia kopurua baxuena da zerbitzua sortu zenetik; jaitsiera, gainera, nabarmena izan da aurreko urteekin alderatuta.

Urtea	Intzidentzia-kopurua
2007	248
2008	310
2009	225
2010	297
2011	296
2012	340
2013	359
2014	412
2015	789
2016	576
2017	346
2018	245
2019	194

2019. urtean Elebiden aurkeztu ziren 194 intzidentzietatik 16 ez ziren onartu. Hau da, intzidentziak aztertu egin ziren, baina, kexaren zioa sakon ikertu

ondoren, Elebidek ondorioztatu zuen ez zegoela oinarri juridikorik intzidentzia izapidetzeko edo intzidentzia Elebideren eskumenetik kanpo geratzen zela. Kontuan izan behar da Elebidek bakar-bakarrik izapidetzen dituela araudian jasotzen diren kasuekin bat datozen kexak. Gainerako 178 intzidentziak Elebideko prozedurari jarraituz izapidetu dira.

Izapidetu ziren intzidentzien % 94 kexak izan dira (168); gainerako intzidentziak honela banatzen dira: 8 kontsulta eta 2 iradokizun. Oro har, kexa horietako gehienak lau multzo nagusitan sailka daitezke:

- Ahozko harremanetan izaten direnak.
- Idatzizko harremanetan gertatzen diren urraketak.
- Hizkuntza-paisaia antzeman daitezkeenak (errotuluak, seinaleak...).
- Internet eta sare sozialetan ikus daitezkeenak.

Ahozko harremanei dagokienez, 64 kexa jaso ziren; horietan herritarrek nagusiki adierazi zuten euskaraz artatuak izateko eskubidea urratu zitzaie. Idatzizko harremanei erreparatzen bazaie, 57 kexa jaso ziren, kasu gehienetan salatzeko erakundeek gaztelania bakarrik erabili zutela herritarrekiko harremanetan. Era berean, bost kasutan salatu zuten hizkuntza eskubideak, bietara, ahoz zein idatziz urratu zirela. Hizkuntza-paisiarekin loturiko kexak 23 izan ziren. Kexa horiek bideetan eta jendaurrean gaztelaniaz soilik jarritako karteiei, trafiko seinaleei eta kale zein laneko seinaleei egiten zieten erreferentzia gehienbat. Lau kasutan salatu zen erakunderen batek urraketa egin zuela, bai herritarrekiko harremanetan bai hizkuntza-paisaia. Azkenik, Internet eta sare sozialetan gertaturiko arau urraketak 15 izan ziren, 2018. urtean baino 21 gutxiago.

Zein hizkuntzatan

Ohi bezala, urraketa gehien-gehienak euskal hiztunekiko gertatu ziren. Izapidetutako 168 kexetatik 164tan euskal hiztunek nozitu zuten eskubide-urraketa; eta, 4 kasutan, gaztelaniazkoek. Gaztelaniazko lau kexa horiei dagokienez, bi kexa jarri ziren bi erakunde publikoren web orrialdeetako eduki batzuk euskaraz soilik zeudelako; kexa bat udal batek kartel bat euskaraz soilik jarri zuelako; eta beste bat, Euskotrenek bozgorailuetatik euskaraz bakarrik helarazi zituelako mezu batzuk.

2019. urtean zehar Elebidera jo zuten herritarren % 96k (186) euskara erabili zuten zerbitzu honekin harremanetan jartzeko; eta beste % 4k (8), gaztelania.

Kexak esparru publikoan

Kexen % 87 (146 kexa) esparru publikoan gertatutako eskubide urratzeak dira, eta % 13 (22 kexa) esparru pribatuari dagozkio. Esparru publikoan jasotakoak horrela banatzen dira:

1. Aurkeztutako kexen % 57 EAEko Administrazio Orokorrari (Eusko Jaurlaritza eta EAEko sektore publikoa: Osakidetza, UPV/EHU,

- Lanbide...) zuzendu zitzaizkion. 2018. urtearekin alderatuta, 24 kexa gehiago jaso zituen EAeko Administrazio Orokorrak (2019an 83 jaso zituen, eta 2018an 59 izan ziren).
2. Foru aldundien kontra aurkeztutako kexen kasuan, 2019an zehar jaso ziren kexen kopurua jaitsi egin da, 2018arekin konparatuz gero (7 kexa zuzendu zitzaizkien 2019an, 2018an baino 6 gutxiago). Jaitsiera hau Bizkaiko Foru Aldundian gauzatu da: kexak 2018an 11 izatetik, 2019an 3 izatera pasatu baitira. Gipuzkoako Foru Aldundian, ordea, kexa kopurua igo egin da: kexa bat izatetik, 3 izatera pasatu da. Arabako Foru Aldundiari dagokionez, kexa kopurua mantendu egin da: kexa bat, hain zuzen.
 3. Toki administrazioei dagokienez, 2019an zehar jaso ziren kexen kopurua jaitsi da 2018koen aldean (39 kexa jaso ziren; iaz baino 19 gutxiago). Lurralde historikoen arabera aztertuz gero, guztietan jaitsi da kexa kopurua.
 4. Estatuko Administrazio Orokorra eta haren menpeko erakundeei dagokienez ere, kexa kopurua jaitsi egin da 2018koen aldean (17 kexa izatetik, 14 izatera pasatu dira 2019an).
 5. Administrazio bat baino gehiagoren partaidetzapeko 3 entitatek kexa jaso zuten (Bilboko Euskal Museoa, Zero Plastiko Urdaibai eta Metro Bilbao); beraz, pasa den urtean baino 6 kexa gutxiago:

Esparru pribatuan

2019. urtean Elebidek tramitatu zituen 168 kexen artean 22 esparru pribatuari dagozkio (betiere arlo horietan Dekretu edo Legeren bat badago hizkuntza eskubideak betearazteko); pasa den urtearen aldean, 11 gutxiago. Esparru horretan, jarduera profesionalei lotutako erakunde eta enpresak daude, eta irabazi asmorik gabeko erakunde zein elkarteak. Urraketak honako arlo hauetan gertatu ziren:

- Zerbitzu unibertsaletan eta interes orokorreko zerbitzuetan.
- Finantza eta aseguruetan.
- Merkataritzan.
- Osasungintzan
- Kultura eta aisialdian.

Kexak onartzeko kontuan izan zen arlo pribatuko hizkuntza-eskubideak bermatze aldera argitaratu ziren abenduaren 22ko 6/2003 Legea – Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuarena– eta uztailaren 1eko 123/2008 Dekretua –Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Hizkuntza Eskubideei buruzko Dekretua–, horietan ezartzen baita zein erakunde edo enpresa dauden legez behartuta eta zein hizkuntza-eskubide bermatu behar dituzten.

Inzidentzien emaitzak

Elebidek izapidetutako 178 intzidentzietatik, 165 itxita zeuden 2020ko martxoaren 31rako. Aldiz, 13 intzidentzia itxi gabe daude eta euren bidea egingo dute 2020an. Kexen kasuan, 155 kexa daude itxita, eta Elebide

izapidetzen ari da gainerako 13ak. Kotsulten kasuan, jasotako 8ak itxita zeuden urte amaieran; izan ere, Elebidek kotsulta bat jasotzen duenean, hori aztertu eta informazio gehigarria eskuratzen du, halakorik behar izanez gero. Azkenik, izapidetutako 2 iradokizunei dagokienez, 2ak itxita daude.

Elebide Zerbitzura zuzendu ziren intzidentzien % 71 (138 intzidentzia) gizonezkoek aurkeztu zituzten, eta % 25 (48 intzidentzia) emakumezkoek. Gainerako intzidentziak (8 intzidentzia) erakunde publikoek zein pribatuek aurkeztu zituzten Hala ere, kontuan hartuta zenbait herritarrek intzidentzia bat baino gehiago aurkezten dutela urtean zehar, banakako pertsoneri erreparatuz, ikusten da gizonen eta emakumezkoen arteko aldea ez dela hain nabarmena: gizonezkoak % 59 (75 gizon ezberdin), emakumezkoak % 35 (44 emakume ezberdin) eta erakundeak % 6 (8 erakunde).

Kultura eta Hizkuntza Politika

EUSKO JAURLARITZAK 2.400.000 EUROKO DIRU-LAGUNTZA DEIALDIA ONARTU DU 2020-2022 ALDIRAKO, KULTURA-ONDAREA BALIARAZI ETA ZABALTZEKO

- **Laguntzen edizio honek aurrekoan baino 300.000 euro gehiagoko aurrekontua izango du; aurrekoaren bidez 19 proiektu diruz lagundu ziren**

Eusko Jaurlaritzak 2.400.000 euroko diru-laguntza deialdia onartu du, gaurko Gobernu Kontseiluan, 2020-2022 aldirako kultura-ondarea baliarazteko eta zabaltzeko. Diru-laguntza lerro hau zuzenduta dago udalei eta beren kultura-ondarea baliarazteko eta zabaltzeko proiektuak bultzatzeko interesa duten eragileei. Aurtengo edizioan 300.000 euro gehiagoko aurrekontua izango du deialdiak.

Diru-laguntza deialdi honen barruan, bi diru-laguntza lerro bereizten dira:

- Euskal kultura-ondarea babestu, aberastu, babestu eta sustatzeko diru-laguntzak.
- Kultura-ondareari eragiten dioten hirigintza-plangintzako tresnak idazteko eta aldatzeko laguntzak.

Aurreko diru-laguntza deialdiaren bidez, mota horretako 19 proiekturi eman zitzaien laguntza. Besteak beste, honako proiektu hauek lagundu ziren: Begoña lurmuturreko (Getxo) galeriei balioa ematea, Jaizkibelgo dorrea (Lezo) finkatzea eta horri balioa ematea, Olabarrietako burdinolaren (Sopuerta) zaharberritzea edo Basagaingo herrixka gotortuari balioa ematea.

Kultura eta Hizkuntza Politika

EUSKO JAURLARITZAK 700.000 EURO BIDERATUKO DITU MUSEOEN ETA BILDUMA PRIBATUEN LANA BABESTERA

- **Diru-laguntza hauen bitartez, erakusketen eguneratzeak, aldi baterako erakusketak eta jarduera didaktikoak diruz lagunduko dira**

Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak 700.000 euro onartu ditu, bere gaurko bilera, 2020an museoen eta bilduma pribatuen lana diruz laguntzeko Euskadin. Diru-laguntza deialdi horren bitartez, Euskadiko Museoen eta Bildumen Erregistroan inskribatutako bildumen edo museoen titularrek sustatutako proiektuak eta ekimenak babestuko dira.

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako Sailaren laguntza-lerro honen bitartez diruz lagundu daitezkeen proiektuek ondorengo jarduketako ildo estrategiko hauetako baten barne kokatu beharko dute:

- Bilduma osatzen duten funtsak katalogatzea eta dokumentatzea.
- Erakusketa iraunkorra berritzea eta aldi baterako erakusketak antolatzea.
- Tematika eta jarduketa-esparru horrekin bat datozen didaktika- eta hedapen-jarduerak diseinatzea eta eskaintzea.
- Gai eta jarduketa-esparru horrekin lotutako ezagutza sortzea.
- Museoaren hedapen- eta komunikazio-planean eta kudeaketan berrikuntza sustatzea eta hobetzea.

Bestalde, laguntza horiek jaso ditzaketen jarduerari dagokienez, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak honako hauek aurreikusten ditu:

- Bilduma dokumentatzea, oro har, EMSIME informazio-sistema erabiliz
- Erakusketa iraunkorra eguneratzea
- Aldi baterako erakusketak.
- Museoaren jarduketa-esparruarekin eta tematikarekin bat datozen jarduera didaktikoak eta ludiko-kulturalak.
- Bildumetako ondareari buruzko ikerketa-lanak, bertan lortutako emaitzak erakusketetan, jarduera didaktikotan eta kultura hedatzeko jardueratan erabiltzeko.
- Bildumei buruzko eduki zientifikoak eta dibulgatzaileak editatzea eta itzultzea, katalogo, monografia, aldizkako argitalpen, ikus-entzunezko eta multimediako argitalpen moduan, gutxienez formatu digitalean argitaratzeko.
- Kudeaketaren berrikuntzarako eta hobekuntzarako dokumentuak eta azterketak lantzea: Plan estrategikoak, gida-planak, zerbitzu-kartak, bideragarritasun-azterketak, publiko-azterketak, komunikazio eta kultur marketineko planak, jardueren programazioa eta barne-

kudeaketan emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko neurriak diagnostikatzea eta planifikatzea.

- Museoaren web-orria sortzea eta hobekuntza teknikoak egitea.

laz, 40 diru-laguntza eman ziren 24 museok, udalek, kultur etxek edo elkartek sustatutako proiektu edo ekimenetarako

Kultura eta Hizkuntza Politika

EUSKO JAURLARITZAK 626.800 EURO ONARTU DITU EUSKARAZKO ETA GAZTELANIAZKO LITERATURA ARGITALPENAK LAGUNTZEKO

- **laz, 32 diru-laguntza eman ziren deialdi honen bidez, eta 477 liburu argitaratu ahal izan ziren**

Eusko Jaurlaritzako Gobernu Batzordeak, bere gaurko saioan, 626.800 euroko kontu-saila onartu du literatura argitalpenak diruz laguntzeko. Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren deialdi honek 511.800 euro bideratuko ditu euskarazko literaturaren edizioa laguntzera; gaztelaniazko lanak laguntzera, aldiz, 115.000 euro bideratuko dira. Lazko diru-laguntza deialdiaren bitartez, 32 literatura argitalpen babestu ziren; 18 euskarazko modalitatean eta 14 gaztelaniazkoan.

Diru-laguntzak ebazteko orduan, Balorazio Batzordeak kontuan izango ditu honako irizpideak: aurkeztutako lanen kultura-arloko interesa, eskaera egin duen argitaletxearen katalogoa eta ibilbidea, eta, azkenik, Edizio-Planaren ezaugarri teknikoak eta aurrekontuaren egokitasuna. Ondorengo irizpideak hartuko dira kontuan, plana bere osotasunean begiratuta:

- Lanen kalitatea.
- Lanen edukia.
- Egileen ibilbidea.
- Euskadik edota bertako biztanleek bizi duten errealitate kultural, sozial eta linguistikorekiko lotura.

Bigarrenik, eskaera egin duen argitaletxearen katalogoa eta ibilbidea. Ondorengo irizpideak hartuko dira kontuan:

- Azken hamar urteetan argitaratutako lanak.
- Berrargitalpen kopurua.
- Lanen banaketa.

Azkenik, baloratuko dira proposatzen den Edizio-Planaren ezaugarri teknikoak eta aurrekontuaren egokitasuna. Ondorengoak hartuko dira kontuan:

- Edizio mota eta euskarri digitalaren erabilera.
- Paperezko liburuaren formatua, azalaren mota, paperaren gramajea eta inpresio mota.
- Aurrekontuaren egokitasuna.
- Balorazio-baremotik gutxienez % 60ko puntuazioa lortzen ez duten proiektuak baztertuta geratuko dira eta ezin izango dira hautatutako proiektuetan barne hartu.

Kultura eta Hizkuntza Politika

EUSKO JAURLARITZAK 170.000 EURO INBERTITUKO DITU ARTXIBO PRIBATUEN ANTOLAKUNTZA, DIGITALIZAZIOA ETA HEDAPENA LAGUNTZEKO

- **laz, 15 artxibo pribaturen hobekuntza diruz lagundu zen laguntza-ildo honen bitartez**

Eusko Jaurlaritzak artxibo pribatuak antolatu, digitalizatu eta zabaltzeko diru-laguntza berriak onartu ditu bere gaurko Gobernu Kontseiluan. Deialdiak 170.000 euroko aurrekontua izango du aurten artxibo pribatuen hobekuntza eta funtsen digitalizazioa sustatzeko.

Deialdia honek bi helburu nagusi ditu:

- Artxibo historikoetako funtsen antolakuntzari edota beren artxibo-tratamenduari laguntzea.
- Aldez aurretik antolatuta eta datu-base batean azalduta dauden artxibo-funtsen digitalizazioa sustatzea. Proiektuek kontserbazio iraunkorreko artxibo digital bat sortu beharko dute, bai eta Euskadiko Artxibo Sistema Nazionaleko webgunean txertatuko den kopia digital bat ere. Aurkeztutako proiektuek deialdi honetan zehaztutako baldintza teknikoak bete beharko dituzte.

laz, laguntza-ildo honek 15 artxibo pribaturen hobekuntza babestu zuen; honako hauek izan ziren laguntzak jaso zituzten onuradunetako batzuk: Sancho el Sabio Fundazioa, Indalecio Prieto Fundazioa, Loiolako Santutegia edota Euskal Herriko Txistularien Elkarte.

Kultura eta Hizkuntza Politika

EUSKO JAURLARITZAK 46.000 EUROKO DIRU-LAGUNTZA ONARTU DU 'EUSKARAREN JABEKUNTZA, KUDEAKETA ETA HIZKUNTZA- PRAKTIKAK XXI. MENDEAN' MASTERRA ANTOLATZEKO

- **Partida honek 'Haur eta gazte literatura eskolan' ikastaro osagarria antolatzeko ere balioko du**

Eusko Jaurlaritzak, gaurko Gobernu Kontseiluan, 46.000 euroko diru-laguntza onartu du Euskal Herriko Unibertsitatearentzat (UPV/EHU), 'Euskararen jabekuntza, kudeaketa eta hizkuntza-praktikak XXI. mendean' masterra abian jartzen laguntzeko. Diru-laguntza honi esker, 'Haur eta gazte literatura eskolan' ikastaro osagarria ere antolatuko da.

Masterra UPV/EHUK antolatu du Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailarekin elkarlanean, Hizkuntza Politikako Sailburuordetzaren bitartez. Masterrak bi helburu nagusi ditu. Alde batetik, euskararen esparruan lanean eta ikerketan sakondu nahiko lukeen ikasleak prestatzea; bestetik, euskarari lotutako esparruetan dabilzan profesionalentzako formazio osagarria ere izatea. Masterrak formatu erdi-presentziala izango du: ostiral arratsalde eta larunbat goizetan izango dira eskolak, bi asterik behin, Eibarko EHUko Ingeniaritza Eskolan. Ikasleek aukeratutako eremuan praktikak egiteko aukera ere izango dute.

Masterrari esker, ikasleek honako gaitasun hauek bereganatuko dituzte: hizkuntzak biziberritzeko giltzarri diren faktoreez jabetuko dira; hizkuntza-planifikazio eta ebaluaziorako dauden tresnak erabiltzen ikasiko dute; euskararen kudeaketa, kudeaketa aurreratuan txertatzen ikasiko dute; eremu ez-formalean euskararen sustapenerako eraginkorrak diren estrategia eta esperientziak ezagutuko dituzte; enpresetako euskara planak diseinatzen ikasiko dute; bigarren hizkuntzak ikasteko eta irakasteko metodologiak ezagutuko dituzte.

'Euskararen Jabekuntza, Kudeaketa eta Hizkuntza-praktikak XXI. mendean' berezko masterra, lau aditu-tituluren batura da, eta master amaierako lana egin beharko da (60 ECTS + master amaierako Lana 12 ECTS).

'Haur eta gazte literatura eskolan' ikastaroa UPV/EHUK antolatu du Galtzagorri Elkartarekin eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailarekin elkarlanean. Ikastaro honen helburua da parte hartzen dutenak (irakasleak, magisteritza ikasleak...) prestatzea, hezkuntza arloan irakurzaletasuna bultzatzeko ezagutza eta bitartekoak eduki ditzaten.

Presidencia

AYUDA DE 350.000 € PARA EL PROYECTO *AITA MARI* DE SALVAMENTO MARÍTIMO HUMANITARIO-SMH

El Consejo de Gobierno ha dado hoy luz verde a la concesión de una ayuda de 350.000 euros a la ONG Salvamento Marítimo Humanitario-SMH para su proyecto *AitaMariZubia* #MAYDAYTERRANEO 2020.

La ayuda –que será concedida a través de la Secretaría General de Derechos Humanos, Convivencia y Cooperación– permitirá a esta asociación formada por profesionales de emergencias y por un nutrido número de personas voluntarias, continuar con su objetivo de salvaguardar la vida de las personas en la mar y promover la defensa de los Derechos Humanos.

El número de personas que consigue alcanzar Europa a través de la vía del Mediterráneo Central -entre Libia, Túnez, Italia y Malta- ha descendido en los últimos años, pero continúa siendo una de las más peligrosas y en las que más muertos y desaparecidos se producen.

La ayuda hoy aprobada responde al llamamiento de emergencia realizado por la Asociación Salvamento Marítimo Humanitario y le va a permitir a esta organización continuar realizando la doble función de rescate/hospital como respuesta a la evolución de los flujos migratorios en la zona del Mediterráneo Central.

Como es sabido, SMH puso en marcha en 2018 -con ayuda del Ejecutivo vasco- un proyecto que consistió en preparar y equipar con material hospitalario el barco *Aita Mari*, para poder realizar operaciones de rescate marítimo y de asistencia sanitaria a personas refugiadas en busca de protección internacional. El buque cuenta con un área de asistencia médica modular que permita usos tipo UCSI (Unidad de Cirugía Sin Ingreso) o UCI para reforzar y dar una respuesta urgente según el caso.

Gobernanza Pública y Autogobierno

EL IVAP DESTINA 1,3 MILLONES DE EUROS A LA FORMACIÓN DEL PERSONAL PÚBLICO QUE TRABAJA EN OSAKIDETZA, EDUCACIÓN, ARKAUTE Y LA EHU-UPV

- **El Instituto Vasco de Administración Pública renueva así, un año más, los cuatro convenios de formación que incluyen, al menos un curso en materia de igualdad entre hombres y mujeres**

El Consejo de Gobierno ha aprobado, hoy, la renovación de cuatro convenios del [Instituto vasco de Administración Pública, IVAP](#), para formación de personal público de Osakidetza, Educación, la Universidad del País Vasco, EHU-UPV, y la Academia Vasca de Policía y Emergencias, Arkaute. El objetivo es renovar los planes y programas de formación del personal público que trabaja en esas cuatro entidades, así como regular su financiación.

- El convenio con el Departamento de **Educación**: es para formar al personal docente y tendrá una dotación máxima de 525.000 euros.
- El convenio con **Osakidetza**: se dirige al personal sanitario y no sanitario, tanto en el campo de la salud como en los de la gestión y administración sanitarias. La dotación destinada a su formación tendrá un importe máximo de 537.000 euros.
- El convenio con la **Universidad del País Vasco (EHU-UPV)**: es para formar al personal de administración y servicios y tendrá una dotación máxima de 45.000 euros.
- El convenio con la **Academia Vasca de Policía y Emergencias(Arkaute)**: está destinado al personal público, cuando la formación sea competencia de Arkaute. La formación suscrita tendrá una dotación máxima de 230.000 euros.

ACCIONES FORMATIVAS

Los cuatro convenios renovados estarán vigentes hasta el 31 de diciembre de 2020 e incluyen, también, las siguientes acciones:

- El diseño y/o elaboración de contenidos formativos.
- El establecimiento de redes de aprendizaje, temporales o permanentes.
- El diseño, elaboración y publicación de material docente en cualquiera de los soportes utilizados en formación.
- Estudios relacionados con la evaluación del aprovechamiento, transferencia o impacto referidos a la formación desarrollada por la entidad.

